

# danbolin

2023 uetalla

251<sup>ak.</sup>

**Felix Lasa Leize:**

**Amonak  
“gaur ez  
duzue ondo  
entseatu”**

**eta horrelakoak  
esaten zizkigun**



**Irao berri**  
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

640 917 626  
**Goxuri**

**k**  
kutxabank  
Portale Kalea 7, 20740 Zestoa  
tel. 943 147 088

**txoko taberna**  
erdikalea 3  
tel. 943 147 196

**OGI BERRI**  
tel. 943 536 314  
Orduetgia:  
Astelehenetik ostiralera  
07:30-13:30, 16:30-21:00  
Larunbat eta igandetan  
07:30-14:30, 17:00-21:00

**oller  
Zingiri**  
943 147 657

**MGS**  
Mutua General de Seguros

**JAVIER ALBERDI**  
Aseguru agente eksklusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa  
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

**Zestoa**  
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524  
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa\_autoeskola@hotmail.com

**MB merendero BELLOETXE**

943 14 73 44 Iraeta-Zestoa

	UZTAILA			ABUZTUA			IRAILA		
	1	2	3	1	2	3	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30	31		
31									

	URRIA			AZAROA			ABENDUA		
	1	2	3	1	2	3	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30	31		

**UZZAPIDE**  
**TABERNA**  
Erdikalea 5  
Telf: 943 14 73 22  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

**AVA ASESORIA ARIN**  
ABOKATUA GESTORIA  
KONTABILITATEAK ZERGAK  
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA  
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK  
Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOIA  
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

**IRAETA JATETXEA**  
Olaizola eta Uria kalea - Iraeta  
943 147 067

**CARAVAN PARK**  
GARRAIO SISTEMAK  
ERREMOLKEEN SALMENTA  
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK  
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK  
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK  
telf. 943 147 679  
www.caravan-park.net  
info@caravan-park.net

**Gestoria Zubia**  
M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOIA  
Tel./FAX: 943 897 070

**HARATEGIA**  
**LOPENE**  
tel. 943 147 848 - 607 186 006

**Diranzub**  
taberna

**LAIAK**  
ZESTOA  
www.laiakdenda.com  
Tfnoa: 943148134  
kutxi eta pentsuak  
laiak  
Lurraren onena  
Zestoaren bihotzean.

**Aranburu**  
Landetxea eta jatetxea  
943 148 005

**TXOKO TXIKI**  
Okindegia eta taberna  
943 052 761

**Fati**  
taberna  
ZESTOA  
Kale Okerra 3  
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l. Itzulpenak baino askoz gehiago!

**Bakun**

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus  
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus

**UROLA**  
ITURGINTZA  
665 49 07 73

**KOIOTE**  
foru plaza, 4  
tel. 943 147 095

**Araneta**  
ERRETEGIA

626 869 231 / 943 148 092  
erreserbak@aranetaerretegia.com

## Enarak bezala

OAutopistatik etxe aldera nator kotxean lanetik bueltan. Egun gogor xamarra izan dut eta nire bu-ruarekin hizketan noa, etxera iristeko desiratzen. Baina badituzte egin eta konpondu beharreko beste kontu batzuk, luzea eta ez nahi erako eguna aurreikusten dut gaurkoa. Eta bat-batean hantxe ikusi ditut zeruan parapentean enarak bezala hegan.

Hantxe gora igotzeko beharra sentitu dut. Zeruan aske, arin, neu bakarrik paisaiatzat gozatzen, beheko munduaz deskonektatuta eta inongo buruhausterik gabe. Mikel Huegun, Mikel Urrestilla eta Jon Eizagirre horrela askotan sentitu direlakoan nago. Motxila hartu eta mendian gora, gero hegan jaisteko. Ederra plana! Orain dela bi urte probatu nuen parapentea. Kuadrillako baten urtebetetze egunean joan ginen, betiko bere ilusioa zela eta sorpresan. Oparia berarentzat zen, baina horrelako aukera parean eduki eta beste denok ere salto zerura! Enarak bezala.

Aurtengo udan neu ere motxila hartu eta mendian gora joatekoa naiz, baina aurtun parapentetik ez. Enaren bidea egingo dut; garai batean Erronkariko neska gazteek Mauleko alpargata fabriketara lanera joateko oinez egiten zuten mendi bidea. Enarak bezala udazkenean joan eta udaberrian itzultzen ziren. Haiena, ordea, ez zen aisia. Parapentean ibiltzeko eguraldi aurreikuspenei zorrotz begiratzen diete, arriskuak ekidin behar dira eta gaur egungo teknologiei esker erraza da hori.

Enaren kasuan ezin gauza bera esan. Lanagatik Pirinioetako bide gorabeheratsuak zeharkatu behar izaten zituzten, hotz, haize, euri eta elurrari aurre eginez. Askori bertan iritsi zitzaizkien heriotza. Txori migratzaileak dira enarak, neska gazte haiek ere halaxe ziren. Migratzaileen bideak ez dira izaten gure aisialdietako joan-etorriak bezain leunak. Zenbat malda, zulo eta muga.

Gure bizitza pribilegiatuaz nahiko jakitun, enarak bezala hegan ez, baina enaren bideetatik oinez ibiliko gara. Goian, mendian aske, arin, konpainian paisaiatzat gozatzen, beheko munduaz deskonektatuta eta inongo buruhausterik gabe. Ze ederra den alturan ibiltzea eta handik behera begiratzea. Parapentetik, menditik, hegazkinetik... behean dagoen horri enarak bezala begiratzea magikoa iruditzen zait. Goitik behean ikusten edo apreziatzen ez diren zenbat detaile ikusten diren. Ondo jakinago du zertaz ari naizen Felix Lasak. Goian, oholtzan berrogei urtetik gora daramatza. Leizeko abeslariak berea abestiak egitea dela dio eta ahotza sartzea. Bera ere goian aske; enarak bezala dantzatzen, hegan dabiltzanez begira.

*amaiur aristi arregi*



**DANBOLIN** EK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

**Argitarabazitea:** DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

**Danbolin:** NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MASCUCANI, NAIARA OLAIZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JONE BERGARA ETA ITSASO WALIÑO

**Kolaborabazite/eusentzabazite baldia:**

NAGORE GELLERIA, JON ARGANO,

FERNANDO ARZALLUS,

ONINTZA IRUREGA, MIREIA ORBEGOZO,

NEREA ODRIOZOLA, ITSASO

ZUBIRIA, JANIRE DIAZ, ETA

MAIALEN KORTADI

**Disenua eta markabazitea:**

ENEKO ARISTI

**Inprimabazitea:** GERTU (OÑATI).

**Lege gordailua:** SS-1108/2000

**ISSN:** 1576-9429



## 49 URTEAKO BIZIPIENAK

Mirentxu maitia! Askotan lagundu dizudala, baina... opari ederra bidali didazu bueltan!

Ba, egia esan 1975etik gaur egun arte Zestoako farmazian eman ditudan urte guzti hauetan bizitako dena oroitzen nahiko lan badut, eta den-dena ere ezingo nituzke hemen kontatu... Baina baditut zenbait bizipen ahaztuko ez ditudanak.

15 urterekin hasi nintzen farmazian lanean eta garai hartan herriko medikuak Don Enrique eta Don Juan ziren. Mediku-errezeta guztiak eskuz idazten ziren orduan, eta nire kezka handienetakoa medikamentu ego-kiak ematea zen, medikuen letra ulertzen nahiko lan izaten baikenuen, batez ere Don Enriquerena, ez dut berehalakoan ahaztuko kaligrafia hura!

Lanean hasi nintzenez farmaziako ordutegia betetzeaz gain, behin ixten zenean guardia ere egiten nuen. Telefono mugikorrik ez zegoenez etxean edo etxetik hurbil egoten nintzen norbaitek larrialdiren bat bazu- en, behar zuen botika zerbitzatzeko. Edo etxean ez banengoen momentu horretan, karteltxo bat jartzen nuen farmazia kanpoan, "zinean nago" esaterako. Gaueko guardian laguntza ere izaten nuen. Sereno lane-

tan zebiltzan Domingo eta Jose Manuelek etxetik farmaziara joaten laguntzen zidaten eta ondoren, etxerako bidea ere nirekin egiten zuten.

Niretzat aldaketa handia ekarri zuen momentu- tariko bat farmazia zaharretik berrira pasa gine- nekoa izan zen. Lan guztiak ia informatizatu ga- be egitetik ordenagailuak eta programak erabil- tzen hastera pasa ginen. A ze izerdiak bota nituen arratoia mugitzen eta pantailari begira! Eta horrelaxe, 49 urte igarota, aurtengo abuztu amaieran bukaera emango diot Zestoako farma- ziako nire ibilbideari. Pozik hartuko dut erreti- roa, herriko jendearengatik jasotako maitasunez beteta, eta datozen urteak osasunez bizitzeko es- perantzaz!

Rita Zabala lagunak ere hartu zuen erretiroa orain urte batzuk; baina, hala ere, gelditu gabe dabil herriko zenbait taldetan adinekoen eskubi- deen alde. Nola ikuste duzu Zestoako adinekoen eta elkarte edo talde hauen etorkizuna herrian?



*mirari aizpurua*

## pintada.

**Arrautzak fatxadan.** Kaleokerra 1-eko bizilagunok gure kezka azaldu nahiko genuke idatzi honen bidez. Azken boladan norbait arrautzak botatzen ari da gure fatxadara. "Norbait" ho- rientzat jolasa izan daitekeena, guretzat buruhauste handia da, fatxadaren materiala dela eta, ezin dugulako hau garbitu. Momentuz ez da ezer "larririk" gertatu, baina noraino iritsi daiteken ez dakigunez, gizalegez jokatzea eskertuko genuke. Badaude beste mila aukera inor izorratu gabe denbora pasatzeko. Pentsatu de- zagun pixka bat zertan ari garen. Denok nahi ditugu gure etxeko fatxadak garbi.

Arrautzak erabili nahi dituzula? Ba zartagina atera eta arrautza pareta edo tortilla on bat prestatu!!!!

*kaleokerra 1-eko bizilagunak*

## 2023AK ORAIN ARTE EMANDAKOEA.

2023 urtea ez da izango erraz ahaztuko dugun urtea, gertatu diren gertakarien (78) ondorioz, adibidez: eguraldiaren gorabeherak, udaren etorrera eta txoko guztietako festak, oraindik bizi dugun inflazioaren ondorioak... Baina niri gehien arduratzen nauen gertakaria, otsailean Zestoako gazte asanbladak okupatu zuen zentroko lokalaren auzia da.

## ZER EGINGO DIOGU BAZA... Gerraren kontra gau-

de, eskuak burura eramaten ditugu metrailetak eskuan ditzuten gaztetxoak ikustean. Klima aldaketak kezkatzen gaitu, uda gero eta desertikoagoak bizi ahala, eta neguan argindarraren prezioak estututa. Argindar konpainiez kezkatzen gara, izugarritzko irabaziak egiten dituztelako herri-tarrok duin bizitzea gero eta zailago dugun honetan.

Multinazionalak kezkatzen gara, bertako dendak eta zerbitzuak ixtea eragiten dutelako. Prezioek gora, bizi-kalitateak behera, pre-kariatateak gora, bertako merkataritzak behera.

Egun on, zer moduz, betiko martxan, ez gara kexatu-

ko... Gero gertakariren bat edo berri txarren bat aipatu, ze amorragarria edo tristea den esan, eta, amaitzeko: zer egingo diogu, ba? Goiko horiek nahi dutena egiten dute eta! Halaxe da, horrela begiratuta indargabe sentitzen da bat. Bartzuen miserien kontura aberasten dira besteak. Frustrantea da, iruditzen baitzaigu guk ezin dugula ezer egin munduko okerrak pixka bat arintze aldera, eta "betiko martxan" segitzen dugu: betiko bankuan interesak ordaintzen, betiko supermerkatuan erosketak egiten, betiko argindar eta telekomunikazio konpainien bezero izaten, betiko multinazionalen arropa erosten, eta abar. Eta betiko martxa horretan, gu baino pribilegio gutxiago dituztenen esplotazioan parte hartzen dugu.

Goiko horiek nahi dutena egiten jarraituko dutenez, eta iraultza handietan sinetsi beharrik izan gabe, guk asko daukagu egiteko, herritar bezala, "pertsona normal" bezala. Gure burua boterearen kontrako borroka sutsuan ikusten ez badugu ere, diru zikinaren jokotik aldentzeko zer edo zer egin dezakegu. Gure lau xoxak betiko enpresei emateari utzi eta alternatibak bila ditzakegu, banketxe etikoak, argindar eta telekomunikazio kooperatibak, gertuko ekoizleak... Azken finean, dirua irabazteagatik irabaztea helburu ez duten ekimenak. Handiek ez dute apenas igarriko gure falta, baina proiektu txikiagoek asko eskertuko dute haiengana batzea.

Gero eta aitzakia gutxiago ditugu "betiko martxan" jarraitzeko, eta gero eta gutxiago izango dugu galtzeko ere. Dugun gutxi hori eman diezaiogun merezi duenari, edo, besterik ez bada, kalte txikiagoa egiten duenari.

Gaztetxearen okupazioak, onura asko ekar diezazkioke herriari.

Bertan beteriko egitarauak gero eta argiago erakusten dute. Gainera, hainbat adinetako pertsonentzat antolatu dituzte.

Gaztetxea beti izan da kulturarentzat arnagune, bertan antolaturiko kultur eskaintzengatik, gainera, asanbladak beheko aretoaren erabilera, Fundizio musika elkartearekin elkarlanean eramango du, herrian musika sortzeko aukera gehiago izanez.

Gaztetxea, modu autogestionatuan lan egiten duen herriko talde bakantekoa da, eta bertako ekintzak, asanbladako kideek modu boluntarioan ematen dituzte. Egitarauak diruaren logikatik kanpo antolatzeak ere bere garrantzia badu, merkatuaren logikaren baitan, ez delako posible egitarauak aurrera eramatea, baina gaztetxeak argi utzi du edozein egoeretan egitarauak aurrera ateratzea posible dela.

Azkenik, herrian instituzioetatik kanpo antolatzeko toki seguru bakarra da gaztetxea, eta antolakuntzarik gabe ezingo genuke mundu hau aldatu, eta gaur egungo krisi egoerari aurre egin. Amaitzeko, nahiz eta gaztetxea zentroko lokalean kokatzea herriarentzat oso positiboa izan, elizak hau guztiaren gaineratik jabetza pribatua jarri du. Nahiz eta espazioak inolako erabilpenik ez izan, beraiek ez dutelako nahi gaztetxea zentroan izan, hau abandonatuta dute.

Udalaren partetik ere, gai honen inguruan ez dute benetako interesik erakutsi, eta dugun egoera ezegonkorrean laguntzeko asmorik erakutsi. Birtartean, gazte asanbladaren partetik gogor eutsiko diogu gaztetxe berriari, Zentroko lokala baita Zestoak behar duen gaztetxea.

Indarrak biderkatzeko, gaztetxea zentrorra!

mikel olaizola

LEIZE TALDEAK BERE LEHENENGO  
KONTZERTUA IRAETAKO SANTAINESETAN  
EMAN ZUELA 40 URTE BETEKO DIRA AURTEN,  
ETA HORREN HARIRA, ABUZTUAREN 26AN,  
KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE HERRIAN,  
BERTAN. FELIX LASA (IRAETA, 1964) TALDEKO  
SORTZAILE ETA ABESLARIAREKIN EGON  
GARA. ZERBAIT BEREZIA ANTOLATU NAHI DU  
ETA EZUSTEKOAK IZANGO DIRELA  
AURRERATU DIGU. BERROGEI URTE BAINO  
GEHIAGO DARAMATZA MUSIKARI LOTUTA  
ETA GARBI DU HASIERATIK IKUSI ZUELA  
BEREA EZ ZELA INSTRUMENTUAK  
DOMINATZEA. "SEGITUAN IKUSI NUEN, NIREA  
ABESTIAK EGITEA DA ETA AHOTSA SARTZEAK.  
ABESTIAK BEHAR DUENA JOTZEN DUT".

### Nola hasi zinen musika kontuetan?

Hasiera batean Zestoan ikasi nuen gitarra jotzen, egunero Mobylltete batean joaten nintzen Azpeititik etortzen zen Peña izeneko batekin ikastera. Lau akorde jotzen ikasteko, ez zen akademia. Leizerekin hasi aurretik, orain hain modan dauden horietakoa osatu nuen Patxi Carrascorekin. *Contra viento y marea* izena zuen, eta Iraetako festetan frontoian jo genuen 1980 edo 81ean. *Eganekin* batera jotzen genuen han eta hemen, orain Zarautzen Xabier Saldias ikusten dudanean hor ibiltzen gara barrez hitz egiten. Egan, Akelarre, Nekez... horiek afaltzera joateko etena egiten zutenean, tarte horietan guk jotzen genuen. Iraetan lehen aldiz jo genuenean, *Contra viento y marea* izenarekin, lehen kantua, *Contra viento y marea* izan zen, eta hau galanta da, garai horretan Zestoako kiroldegia ireki zela ez zen denbora asko, han egiten ziren areto futbol partidu horietako batean, Arroagoiko Kandidok eman zidan golpe batekin eskumuturra puskatu zidan kontzertua baino hamar egun lehenago. Carrascok bizkarreko lesio bat zuen eta zuzen egoteko burdinekin bera eta ni eskumuturra puskatuta, eta *Contra viento y marea* jotzen...

### Nola pasa zineten Leize izatera?

Potxolo eta kiroldegi artean, lehen, lokal zahar batzuk zeuden, eta bertan Toto Waliñok lokala zuen. *Contra viento y marearekin* pare bat urtean ibili ginen jaialdiz jaialdi, baina guk zarata behar genuen, rock-and-rolla. Argindarrak ez zuen lokal horretan hasi ginen. Waliñok bateria zuen gustuko, gero kontaktuko dut bateriarena, eta guk

gitarra espainolarekin. Baxua behar genuen eta Zarautzen Lasalletarretan nirekin ibilitako Toño Rodriguez ezagutzen nuen. Berez gitarrista zen, baina berarekin hitz egin, entseguen hasi eta funtzionatzen zuela ikusi genuen. Elektrikoarekin hasi behar genuenean, baserrira pasa ginen. Ni Iraetako Otzaka baserrikoa naiz, orain erorita dago, zubi ondoan. Behean entseguak egiten genituen, eta goian bizi nintzen. Garai horretan guztia euskaraz egiten genuen, iraetarra izanik, ez da zaila. Gogoratzen dut tarteka nola amonak esaten zizkidan "gaur ez duzue ondo entseatu" eta horrelakoak [kar-kar]. Hasiera haietan beheko zati batean entseguak egiten genituen eta bestean zeriak, oiloak... zeuden.

### Baina 80ko hamarkadan Iraetan normala zen...

Baina zoragarria zen. Larunbat arratsaldetan, denbora horretan Anestesia, RIP, Eskorbutoren garaia zen, eta Iretara etortzen ziren eta iraetarrentzat errealaren partidu bat ikustea baino hobea zen haiei begira egotea. Eliza atarian esertzen ziren eta hor pasatzen ziren batzuk krestarekin, besteak kateekin... Guk gainera izozkailu beltz bat edukitzen genuen beti zerbezaz betea, eta hor etortzen ziren denak. Garai horretako oroitzapenak izugarriak dira. Hasiera zen, orain baino gogo gehiago seguru ez genuela, baina beste indar bat bai, pila bat jotzen genuen, Euskal Herrian kristoren mugimendua zegoen, guztia egiteko zegoen, diktadura batetik irtenda geunden, lapikoa iraki-

ten zegoen. Bilbora ere joaten ginen, gazetxeko mugimendua ere orduan hasita zegoen. Garai horretan asko jotzen genuen.

"SEGITUAN  
IKUSI NUEN,  
NIREA  
ABESTIAK  
EGITEA DA"



**Entseguak base-  
rrian eginda, etxeoak ez zeudela  
aurka imajinatzen dut...**

Ez, ez, gainera nire ama jatorriz Itzi-  
arkoa da, trikitilari bat bazen han eta  
nire aitak, gainera, alboka jotzen  
zuen. 18 urte bete nituenean amak  
aukeran jarri zidan, gidabaimena  
ateratzea edo gitarra ikastea, eta nik  
gitarra aukeratu nuen Iraetan bizita.  
Bada gogoia.

**Lehen kontzertu hura 83ko santai-  
nesetan izan zen orduan?**

Bai, orduan guztia santainesetan iza-  
ten zen. Kristoren festak antolatzen ziren, autoak Arro-  
goraino egoten ziren. Inguruko festak bezala ziren, ur-  
tarrilean izaten dira, ez udaran, eta beste inon ez da

ezer izaten, inguruko guztiak  
etortzen ziren. Inguru guztiak gainezka egoten ziren. Frontoia, eli-  
za, kaleak... han ateratzen genuen diruarekin ordainduta daude. Taberna jartzen  
genuen eta dirutza ateratzen zen.

**Gaur egun instrumentuak lortzeko aukera ugari daude, baina nola egiten zenu-  
ten garai hartan instrumentuak lortzeko?**

Aurrezten, eta gure amak eta egiten zuten esfortzua guk hori egin ahal izateko,  
buff! Nik oraindik hemen daukat amari esker erosi nuen lehen gitarra. Donostia-  
ko Easo kaleko denda batean ikusi nuen, baina nahiko diru ez erosteko... Askotan  
joaten nintzen dendara gitarra probatzera. Bertakoak esango zuen "hemen da be-  
rriz *pelma* hau". 200.000 pezeta edo balio zituen, niretzat ikaragarri zen, eta egun  
batean dendakoak deitu zidan esanez bertan zegoela Celtas Cortosekoa, gitarra  
erostea nahi zuela eta ea nik zer egin behar nuen galdezka. "Ez mugitu hortik"  
esan nion eta oraindik ez dakit nola, baina ziztu bizian joan eta ordaindu nuen gi-  
tarra. Hor daukat oraindik gitarra hori. ➤

## Lehen kontzertu haietatik lehen diskora nola iritsi zineten?

Kontzertuak ematen hasi ginen eta maketa grabatu behar genuela pentsatu genuen. Donostian "Tsunami" izeneko estudioan grabatu genuen, euskaraz. Horrek Madrileko diskoetxe batekin singlea grabatzeko aukera eman zigun, baina erdaraz egin behar genuela esan ziguten. Ezustean izugarritzko arrakasta izan zuen. Gero lehen diskoa, *Devorando las calles* grabatzeko atea ireki zitzaigun. Horrek ere izugarritzko arrakasta. Inork ez zuen estilo horrelako kanturik egiten. Eta orduan, dena utzi eta Madrilerara bizitzea joan behar genuela esan ziguten. Baina guk "ezetx, ezta pentsatu ere!" Gu baserritarrak gara eta orduan Madrilerara joatea ez zen orain bezalakoa. Azkenean, hiru disko grabatzeko akordioa sinatu genuen, eta gure bidea jarraitu genuen, hemen.

## 1997an geldialdia egin ondoren, nola erabaki zenuten 2006an itzultzea?

Bederatzi urte egon zen taldea geldi. Jendeak deitzen zidan kantu batean ahotsa sartzeko edo koruak egiten laguntzeko, kantuak egiten... saltsan egon naiz beti. 2006an, zortez taldekide guztiok umeak nahiko batera izan ditugunez, parkean Toño Rodríguez ikusten nuen, eta "igandeetan entsegu batzuk egiteko elkartzeko hasi behar dugu..." esaten zidan. Egun batean, etorri eta nirekin hitz egin behar zuela esan zidan. Parkean banku batean eseri eta denbora pasa bada ere berriz elkartu beharko genukeela erabaki genuen. Hitz egiten bukatuta, emaztearengana joan nintzenez, berak zuzenean esan zidan: "itzuli egin behar duzue". Aurrepegi antzeman zidan. Ez nuen asko behar.

## Bederatzi urteren ondoren taldea osatzea konplikatu izan zen?

2006an hasierako partaide gehienak elkartzeko saiatu behar genuela erabaki genuen, baina egoera pertsonalak aldatuta zuden; batek umeak, bestea kanpoan bizi zen... Bateria jolea behar genuen eta orduan komodinaren deia erabili genuen: David Gorospe. Igandetako entseguak berarekin hasi genituen eta 2007an "*Sólo para ti*" disko berria grabatu genuen elkarrekin. Lehen ahaztu egin zait bateriaren istorioa kontatzea: Guk izan genuen lehen bateria joleak, Waliñok, elizan edo zentroan edo zine goian, ez dakit garbi non, traste zaharren artean bateria zahar bat topatu zuen. Utzita zegoela ematen zuen. Hartu eta beltzez pintatu zuen. Handik urte morderoxka pasa zenean, Gorospe gurekin hasi zenean, argazki zaharrak ikusten ari ginen behin eta "hau nire bateria zaharra da-eta, harrapatu zidaten bateria!", esan zuen. "Totorekin hitz egin" esan nion [kar-kar].

## Bukatzen joateko, zer suposatzen du zuentzat abuztuaren 26an herrian emango duzuen kontzertuak?

Udalekoekin hitz egin nuen, berrogei urte zirela eta datorren urtean jo genezakeela, baina berezkoa aurten Zestoan jotzea izango zela. Zer behar genuen, musika ekipoak... eta horrela hitz egiten ari ginela, Zestoako beste batzuk, gazte batzuk edo, gurekin jotzea egokia iruditu zitzaigun. Eta hala, Maniturei proposatzea bururatu zitzaigun.

## Kontzertua ikustera joaten denak zer topatuko du? Kantu zaharrak? Berriak?

Gaur egun guretzat kantu zerrenda egitea oso konplikatu da. Guk normalean 26 kantu inguru jotzen ditugu, baina Zestoan 20 inguru izango dira. Agian tartean zerbait berezia egingo dugu, edo taldeko norbait behera jaitsiko da edo...

## Kontzertu horretarako kontatu daitekeen zerbait berezia antolatzen ari zarete?

Zerbait egingo dugu. Ezin dut kontatu, baina dei baten erantzunaren zain nago. Batek erantzun dit eta hori etorriko balitz eliza eroriko litzateke, baina atzerrian grabatzen ari da eta zaila izango da. Beste batekin ere ari naiz tratuan... oraindik ez dit erantzun. Aurrera dezaket Euskal Herrian ezaguna dela.

Urko Gansoco



"amak aukeran jarri zidan, gidabaimena ateratzea edo gitarra ikastea, eta nik gitarra aukeratu nuen iraitan bizita, bada gogoia"



# ZESTOAN

*uste baino gehiago*

## Janaridendak

 **ELORZA**  
janaridenda  
943 147 660

**ARRAINDEGIA**  
**KONTXI**  
ZESTOA 943 148 247  
AZPEITIA 943 811 946

**mian**txa  
943 147 015



**unide**  
egunero janariak  
943 558 005

**UZKUDUN**  
harategia  
Erdikalea, 5  
Tel. 943 147 023  
ZESTOA

## Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110  
  
*mairi*  
LOTERIA  
ESTANKOA

  
LOTXOLO  
Tel. 943 147 133

**Zbitt**  
Tif: 943 148 010

## Etixerako osagarriak

**ONK**  
943 147 081-647 683 643

**UGARTE**  
burdindegia s.l.  
943 147 154

## Arropa eta oinetakoak

**IRAOLA**  
ZAPATEGIA  
617 269 408

  
**lili** 943 148 061

## Edertasuna eta ongizatea

*beatriz izeta*  
943 148 322

*karmele*  
943 147 832

**KERALA**  
ongizate txokoa  
679 885 173

  
ESTILISTAK  
680 802 777

 **ZESTOA**  
**ZURETZAT**

# Arroarrak hegan



NORK EZ DU INOIZ TXORI BAT  
HEGAN IKUSI ETA INBIDIA PIXKA  
BAT SENTITU? ZER OTE DA HEGAN  
EGITEN JAKITEA?  
GARAI BATEKO ZALETASUNA  
INDARRA GALDUTA EGON BADA  
ERE, AZKENALDIAN BERRIRO  
JENDE MORDOXKA DABIL ENDOIA  
GAINEAN KOLORETAKO ZAPIAK  
DANTZATZEN. BADIRUDI  
PARAPENTEA BERRIRO ERE  
MODA-MODAN  
DAGOELA. HORI  
AITZAKIA  
HARTUTA, GU ERE  
ENDOIAN IZAN  
GARA,  
ARROAGOIKO MIKEL HUEGUN  
(1966), MIKEL URRESTILLA (1976)  
ETA JON EIZAGIRREREKIN, (1980)  
MUNDU HAU GERTUAGOTIK  
EZAGUTU NAHIAN.

## Mikel Huegun

Huegunek txikitatik izan du hegan egitearen ideia buruan buelta-ka. Gogoan du nola egurrezko hegazkinak egiten zituen. Aurreneko delta-hegalak 80ko hamarkada inguruan ikusi zituen Arroan. “Hombre pajar” edo txori-gizon deitzen zieten Arroagoiko zeruan aurrena agertu ziren haiei. Umea zela festetan egiten ziren ikuskizunak ez dauzka ahazteko. Jende pila bat izaten zen Arroan delta-hegalak ikusten, eta eskola ere izan zen Arroagoian bertan. Huegunek, noski, probatu zuen delta-hegala, baina ez zitzaion gehiegi gustatu. Parapentea asmatu zuten gero, ordea, eta hura bai, hura asko gustatu zitzaion, eta ordutik dabil hegan. “Parapentean ibiltzea hegan egitea da, eta hori gauza handia da, laino azpian sartu, laino artean ibili, putreekin batera hegan egin...” dio Huegunek.

Parapentea 86-87 inguruan egin zen ezagun, eta ez zen urte asko pasa Huegunek Sopelan ikastaroa egiterako. 1988-89 inguruan egin zuen: “23 urte izango nituen. Pare bat asteburutan ikastaroa egin, parapentea erosi, eta hemen ibiltzen nintzen, egunean hiru bat aldiz igo Endoira eta jaitsi, behin eta berriz. Egun batean txarrantxaren kontra, hurrengoan zuhaitzaren adarra... baina azkenerako ikasi!”.

Gauza guztietan bezala, honetan ere, oinarrizkoa ikastaroan ikasten bada ere, gero orduak sartu behar dira. “Teoria berehala ikasten da, baina parapentean ibiltzen denborarekin ikasten da. Gehienbat meteorologia ikasi behar da, eguraldia ezagutu eta kontrolatu. Bestela, parapentea erraza da, eta gaur egungo materialekin oraindik eta errazagoa; ia ez da korrikarik ere egin behar hegan egiteko. baina, behin goian zaudela, burua argi izan behar da, eta zertan ari zaren jakin”.





Garai hartan jende asko zegoen inguruan parapentean ibiltzen ikasi nahi zuena, eta eskola ere jarri zuen martxan Huegunek. Eskolara kanpoko jende asko etortzen zen Arroagora. Aurrena behean ibiltzen ziren gora eta behera zelaian. Huegunek ikaslea prest ikusten zuenean, Endoiara igotzen ziren. “Ez zen arroar asko geratu parapentea probatu gabe. Dozena bat arroar edo elkartuko ginen” dio Huegunek.

Izarraitz delta-parapente izeneko kluba ere bazen orduan. 30 bat lagun elkartzen ziren tarteka, eta irteerak egiten zituzten. Uztaileko aurreneko asteburuan, beti, Piedrahitara joaten ziren. 4.000 metroko altuera hartzen da han, eta 200 kilometro inguru egiten dira hegan. Toki “potentea” da.

**Mikel Urrestilla**

Inertziak ezagutu zuen mundu hau Urrestillak: “14-15 urte nituela, frontoia eta nire baserria arteko zelaian zeukan Huegunek parapente eskolako praktikak egiteko gunea. Guk futbol zelairik ez genuenez, hauxe zen han zegoena! Jende mordoxka biltzen zen etxe ondoko zelaian eta ni saltsara gertu-ratzen nintzen, girora. Mikelek, eskolako materiala uzten zigun eta zelaian praktikatzen ibiltzen ginen. Halako batean ea gotik hegan egin nahi al nuen galde-tu zidan, eta nik ez nuen duda izpirik izan”.

Urrestillak ez dauka ahazteko hankak airean sentitu zitueneko aurreneko aldi hura: “Gogoratzen dut nola korrika egin eta tira-sokei eta halako batean hankak zelaitik altxa eta nola airean sentitu nintzen. Hegan ari nintzen. Orduetik askotan ibili naizen arren, au-

**IDATZI GABEKO LEGEAK**  
Eguraldi ona denean zerua ere zabalagoa da, baina, horren ona ez denean, leku gutxiagoan elkarren gainean ibili behar, eta, batez ere horrelakoetan, arau batzuk garbi izatea beharrezkoa da. Esate baterako, mendia eskuinera edo ezkerrera duzun, batek edo besteak du lehentasuna. Edota norbait termika batean jiratzen ari bada, eta zu han sartzeraz bazoaz, haren norabidea errespetatu behar duzu. Hasieratik markatuta dauden arauak dira, eskoletan ere erakusten dira.

**MODALITATEAK ETA LEHIAKETAK**  
Parapentearen munduan ere modalitate asko daude. Frantsesek paraxuta hartu, mendia igo, eta hegan azkar jaisteko bidea aurkitu zuten parapentearekin. Baina hegan egitearen kontzeptua sartu zen gero, eta horrekin batera modalitate asko: akrobatak, *speedflying*... Gure lagunak ez dira lehiaketetan ibiltzen; hauena altuera hartu eta termiketan mugitzea da, Zumai aldera joan eta etorri, Andutz aldera joan eta etorri, afizioa. Endoitik gure ondoan ateratzen ari diren asko dabilta lehiaketetan, ordea. Ibilbide bat puntuz puntu egin behar da ahalik eta denbora gutxienean. Maila ezberdinak daude, baina proba askotan sei orduetik gora egiten dituzte airean. 500 kilometro hegan. Goian daudela egin behar dute dena; jan, edan eta gainontzeak.



► rreneko sentsazio hori hor gelditzen da, ez da ahazten". Berarentzat parapentea "denbora pasa eder bat" da. Mendizalea izanik, berau uztartzen duen beste jarduera bat. "Batzuetan, gotik ateratzen zara eta agian haize gutxi, edo eta borroka pila bat egin behar da hegan goian irauteko, eta erdi pintxatuta zaudenean, ia behean zaudenean, eta termika burbuilatxo bat aurkitzen duzu eta pazientziarekin hartu eta, arrisku puntu txiki bat, lurra gertu edo zuhaitzak baldin badaude ere... Halako batean pixkanaka goraka hasten zara, eta erremontatzen duzu, eta berriro gora... hori mundiala da". Baietz egiten du buruarekin Huegunek ere.

Urrestillarentzat altxorra da hegan egiteko toki hau eskura izatea. Etxetik dozena bat kilo inguruko motxilarekin oinez igo Endoira, eta hegan itzultzea etxera: "Arroara, hainbat tokitatik etortzen da jendea hegan egitera, batzuek ordubete edo gehiago egiten dute kotxez. Hau, surf zalea izan eta ondo formatzen den olatu baten aurrean bizitzea bezala da!".

Hainbat momentu ditu gogoan Urrestillak: "altura irabazten ari zaren heinean lurrarekiko hartzen duzun prespektiba nola aldatzen den sentitzea, edo termika bera putreekin konpartitzen duzunean, beraiek gora egiten duten tokian, parapenteak ere gora egiten du, eta hor zaude zu, arrotz, elkarri begira, termika berean jiratzen...".

### Jon Eizagirre

Ez zituen dozena bat urte izango Jonek Hueguni parapenteak jasotzen laguntzen hasi zenean. Okasio guztiak baliatzen zituen kanpotik etorritakoei ere jasotzen laguntzeko, eta, bide batez, ahal zuten guztietan pixka batean erabiltzeko: "Beraiek gustura parapentea jasotzen, eta ni ere bai". "Artista bat zen hau parapenteak jasotzen! Ba al dakizu zenbat ordu egin dituen horretan?" dio Huegunek.

Urte batzuk beranduxeago, Huegunen ikasleak goitik aineratzeko prest zaudenean, Endoira laguntzen zien hark atera aurretik dena ondo zutela errebisatzera, eta behean gelditzen zen Jon walkie-talkieekin lurreratzen laguntzen: "Eskuinera, ezkerrera, frenatu eta horrelakoak esaten nizkien. Behetik ezin duzu gauza handirik egin, aginduak eman bakarrik, hegan datorrenak egin behar

"PUTREAK GORA EGITEN  
DUTEN TOKIAN,  
PARAPENTEAK ERE  
GORA EGITEN DU, ETA  
HOR ZAUDE ZU, ARROTZ,  
ELKARRI BEGIRA  
TERMIKA BEREAN  
JIRATZEN..."



du egin beharrekoa. Noiz frenatu eta nola egin esaten nien, eta ni oraindik inoiz gora joan gabe nengo!”.

Aurreneko aldirako prest zegoenean, adingabea zen oraindik, eta aitaren firmarekin igo zela gogoratzen du Eizagirrek.

Orain bera da aita, eta denbora asko ez dela alaba Goranerekin ibili da. Bi plazakoan egin dute biek hegan, eta oroitzapen polita dute; hiru ordu laurden ibili ziren hegan patxada ederrean.

Azkenaldian gutxixeago dabil, ordea, eta konfiantza galdu duela pixka bat dio: “Ahaztu ez da egiten, baina gutxiago ibilita, gauza guztietan bezala, honetan ere konfiantza galdu egiten da. Buruak lan asko egiten du”.

Berriketa saio ederra egin dugu, eta inguruko guztiak aireratu dira. Gure bikotearen txanda da. Eizagirrek ez du hegan egiteko asmorik ekarri gaur. Azken pare bat hitz egin eta agur! Hor doaz hegan. Bakea transmititzen dute hegalariek, eta isilik gelditu gara gu ere.

### jone bergara



#### EZUSTEKOAK, SASOIA ETA BERTIGOAK

Ezet esan dute aurrena, baina gero hasi dira gogoratzen, eta, tarteka, sustotxoak ere izan dituzte horrenbeste urtean. Gehienak lurreratzerakoan, hanka gaizki jarrita egindako lesioak. Adinaz galdetu diogu gure ondoan atera berri denari, eta 66 urte dituela aitortu digu. Baina sasoi galanta! 72 urteko laguna ere badabilela oihukatu digu. Esfortzu fisikoa baino gehiago mentala behar da kirol honetan.

Bertigoaz ere aritu gara. Hankak lurrean ez daudenean ez dagoela bertigorik esan du Huegunek. Ez dela gauza bera labar ertzetik begiratzea, edo goitik dena batera ikustea.

#### MATERIALA ETA TRESNERIA

Gaur egungo materiala hobea da, pisu gutxiago du, soka finagoak... Azken finean, haizeari erresistentzia gutxiago eta kontrol gehiago.

Lehiaketetan ibiltzen direnek gauza gehiago eramaten dituzte, baina hauek altibarioa eramaten dute; metro segundoko pi-pi egiten duen aparatu bat, gora edo behera zoazen jakinarazten duena. Paraxuta ere bai, noski. "Guk bat eramaten dugu, baina jendea bi eramaten hasi da orain. Garai batean batere gabe ibiltzen ginen, ezta kaskorik ere! Bizikletakoa agian?" Hau dio Eizagirrek paraxuta dela eta: "Beti pentsatzen duzu ez duzula sekula botako, baina aukera bat gehiago da. Dena den, jakin behar da honekin ere segundoko 5-6 metro behera zoazela. Hori gabe azkarrago, baina honekin ere hartu egin behar".

#### EGURALDI GIZONAK

Oso beharrezkoa da eguraldiaz jakitea. "Eguraldia errespetatu egin behar da, kontra ez egin, zu baino gehiago da eta; zu trapu batekin zoaz!" dio Jonek. Garai batean Arroako gurutzetik, antenen ondoan dagoen gurutzetik, salto egiten zutela esan digute, baina gaur egun antenetatik egiten dute. Beti itsas aldera begira. Aireratzerakoan altuera hartu behar da, eta horretarako termika baten sartu behar. Aire beroarekin gora egiten da, eta hotzarekin behera. Endoitik itsasorantz ez dago mendi handirik parean, eta haizea garbia da. Atzera egiteak, Zestoa aldera egiteak, alegia, bere zailtasunak ditu. Mendiaren atzean, haizea beti da nahasiagoa eta arriskutsuagoa. Zestoa aldera egiteko hego haizea behar da, bestela ezin da haizearen kontra berriro Endoira itzuli. Egin izan dute Endoian atera eta Samiñon jaitsi ere. Baina hego haizea beti narrasagoa izaten da. Gaur egun informazio asko dago, prebisio onak. Gainera, haizea normalean ez da kolpera aldatzen, badakite galerna sartuko al den, lainoa zenbaterainokoa izango den, termikak, sabaia non dagoen, alegia, zenbateraino igotzeko modua izango duten, haizeak ze indar duen, non, noiz...



## EGUZKI XURI KONTZERTUA SASTARRAINGO HARROBIAN

Eguraldia tarteko hainbat aldiz hitzordua atzeratu beharra izan bada ere, azkenean, ekainaren 18an izan zen emanaldia. Ezagutzen ez ditugun arrazoiak tarteko, ez zen harrobiko hormako dantzaririk izan, baina, leku paregabea eta musikari bikainekin, gozatu ederra hartu zuten Sastarrain bailarara bertaratu zirenek. World Weather Network larrialdi klimatikoari ahotsa jartzen dion arte agentzia independenteen sareak antolatu zuen emanaldia Artingeniumen bitartez. Juantxo Zeberio musikariak sortutako bidaia musikalean Maddi Oihenart, Miren Narbaiza (Mice) eta Olaia Intziarte abeslariak; Hari laukotea & harpa, eta Hernaniko Dakapo abesbatza entzuteko aukera izan zen. EITB "Oholtzan" saioan eskaintzekotan da kontzertua, ETB1en eta eitb.eus-en.



## ZESTOA-PIEDRAHITA BANDEN ELKARTRUKEA IZAN ZEN EKAINAREN 17AN

Zestoako bandak eta Piedrahitakoaren elkartruke egitasmoa tarteko, handik etorri ziren 80 bat pasa den ekainaren 17an eta hemendik hara joan ziren beste hainbeste ekaineko azkeneko asteburuan.

Eguraldiak lagundu ez zuenez, ezin izan zuten Euskal Herria plazan eskaini kontzertua eta elizan egin zuten, baina jendetza bildu zen. Aurrez, kalejira ere egin zuten 80 musikari inguruk elkarrekin.



## 30. URTEURENA OSPATU ZUEN BIOLURREK IRAETAN

Biolurren 30 urteko ibilbidea ospatzeko hainbat biolurkide, talde eta sindikatu elkartu ziren ekainaren 11n Iraetako frontoian. Goizean zehar, batzar nagusia izan zen aurrena. Ondoren, Amillubi proiektua aurkeztu zen eta bertara bisita egiteko aukera ere izan zen. Ehun lagun inguru elkartu ziren bazkaritan eta ondorengo Monsanto Kilomboren kontzertuan.



## MIKEL IBARGURENEN "NEGU HURBILAK" FILMA AUKERATU DU LOCARNOKO JAIALDIK

Mikel Iburgurenek, Ekain Albitek, Nicolau Mallofreak eta Adria Rocak zuzendu duten "Negu hurbilak" lana aukeratu dute Locarnoko 76. Zinemaldian (Suitza). "Cineasti del Presente" sailean lehiatuko du euskarazko filmak eta aukeraketa horri esker, pelikulak mundu mailako estreinaldia izango du A klaseko jaialdian. Abuztuaren 9an izango da aurreneko emanaldia.

Zubietan grabatutako filmak ihesaldi baten historia kontatzen du, eta hango herritarrek ere hartu dute parte grabaketetan.

Lau gazteen aurreneko film luzea izan da eta Mikel Iburguren herritarraren esanetan amets utopiko bat egi bihurtu zaio: "Futboleko Champions League txapelketa jokatzea bezalakoa izan da".



### SAGUZARRENTZAKO BABESLEKUA JARRI DU NATURTZAINDIK YOGA ETXE ONDOAN

Saguzarren ugalketarako babeslekua jarri du Naturtzaindia elkarteak Sanatana Dharma yoga eskola ondoan. Hainbat saguzar espeziek yoga etxea erabili izan dute azken urtetan ugaltzeko. Naturtzaindiako teknikariek egindako jarraipenetan 150 ferra-saguzar handi, 80 Geoffroy saguzar eta 50 Schreiber saguzar zenbatu dituzte. Hiru espezie horiek Espezieen Euskadiko Zerrendan babestuta daude, kalteberen kategorian, eta horiek ugaltzeko jarri dute babeslekua.



### LIBURU-AZOKEN BALORAZIO BIRIBILA

Hiru ostiralez egin du liburutegiak liburu-azoka.

Balorazio oso ona egin dute, "errepikatze moduko" ekintza izan dela aitortu dute liburutegiko arduradunek, eta urtea amaitu aurretik, berriro beste azoka bat egitekotan dira. Askotan herritarrek dohaintzan liburuak uzten dituzte liburutegian, eta hauek errepikatuta egoten dira, liburutegian bertan lehendik ere bazeudelako. Behin haserako nobedadea galtzen dutenean, errepikatuta edukitzeak ez duela zentzurik eta hortik bururatu zitzaizen azoka egitearen ideia. Oso prezio merkeetan saldu dituzte liburuak. Azokan ateratako diruarekin liburu berriak erosiko dira.



### ANER ETA ADONIS TXAPELDUN 2023KO TXOKOKO PILOTA TXAPELKETAN

Ekainaren 9an jokatu ziren 2023ko Txokoko finalak. Aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partida jokatu zuten. Xabat-Mattin bikotea gailendu zitzaizen Gerena eta Aitzoli, 30-11 irabazita. Finala, berriz, Aner eta Adonisek irabazi zuten, Mikel eta Oier 15ean utzita.



### JAGOBA ASTIAZARANEK SGAE EUSKADIREN LEHENENGO KONPOSIZIO SARIA IRABAZI DU

Jagoba Astiazaran musikari zestoarrak SGAE

Euskadiren lehenengo konposizio saria irabazi du. Txistuarekin sortutako Zotz obra saritu du epaimahaiak. Astiazaranek 3.000 euro jasoko ditu, eta diru horrekin obra berri bat sortu beharko du. Lan hori 2024ko lehen hiruhilekoan estreinatuko da, Kuraia Musika Garaikidearen XXX. Topaketen barruan.

Musikaria oso pozik agertu da. "Oso gustura nago sariarekin. Epaimahaiak ez zekien lan bakoitza norena zen, eta anonimotasunean irabazte horrek ilusio berezia egin dit".



Zestoako Udala



*Paperezko harresien eta etengabeko guda baten menpe bizi direnei: herri hau denona da, zuek gu gara. (25. artikulua. Ilun eta abar. Idoia Azurmendi. 2021)*

## usteak erdia ustel

'Ilegalak dira'



Inor ez da legez kanpokoak. Pertsona bat egoera irregularrean dagoela esan dezakegu, baina inola ere ez legez kanpokoak dela, bakarrik ekintzak edo egoerak direlako legez kanpokoak, inoiz ez pertsonak. Erresidentzia-baimenik ez izatea irregulartasun administratiboa da, ez delitua.

Zergatik kriminalizatu adjektibo horrekin pertsona bat?

Sentitu, pentsatu,  
**hitzak aukeratu** eta,  
ondoren, hitz egin



**Oporretan ere**  
praktikatu eta bizi  
**euskaraz**

Gu **irailean** itzuliko gara!





# AUZOAK FEST ETAN

SANKRISTOBALAK  
NARRONDON



KARMENAK ARROABEAN

SANTIO SANTANAK  
ARROGOIAN





Nik uste nahiko turista ibiltzen dela. Bainuetxe buelta-koak eta... gero Zarautz bezela bihurtzeko eta dena saturatuta... ez dakit... gauden bezela nahikoa iruditzen zait. Tabernetako terrazetan eta batzuetan nahiko lan izaten da.

**yolanda acedo**  
40 urte



Horrela ederki bizigara. Bainuetxeak ere bere ekarpen txikia egiten du. Masifikatzea ez dakit zenbaterainoko onuragarria izango zen. Horri etekina ateratzeko herri mugatua daukagu.

**lander zabala**  
46 urte



Ba tamaina batean. Zumaian "Juego de Tronos" ondoren eduki duten agobio hori ez nuke nahi, baina bestela bizitza ematen dio eta geu ere gustora joaten gara turismo egitera beste herrietara.


**josune izeta**  
54 urte



Komertzioentzat eta tabernarietzat agian positiboa izango litzake, baina neretzako ba nahiago nuke oso turistikoa ez izatea ze lasaiago bizi gea horrela.

**mikel nogales**  
40 urte

## ZESTOA HERRI TURISTIKOAGOA IZATEA GUSTATUKO AL LITZAIZUKE?



■ Ez  
■ Bai  
■ Ez dakit

(Erantzuleak guztira: 125)



ale

Globoekin jolastea zoragarri dago, baina plastiko zatitxoak jaso egin behar dira!



ale

Iraetan, futbol zelai ondoan, plastiko birziklatuzko mahai berriak jarri dituzte

## ABUZTUA SANLORENTEKO JAIAK

**10 OSTEGUNA**  
Goizeko 11:00etan meza.  
Ondoren pintxoak bertaratutakoentzat,  
ume jolasak eta poniak.

**26 LARUNBATA**  
Manitu eta Leize taldeen  
kontzertuak.

\* **LAIAK II. ARDO JOLAS  
LEHIAKETA** abuztu bukaera.  
Egunak zehazteko daude.

## amabirjinak aizarnan

**12 LARUNBATA**  
Arratsaldeko 18:00etan txupinazoa  
botako dute herritar gazteenek. Ondoren,  
pilota partidak: Azkue-Agirre / Uria-Alonso  
eta Sasiain-Alonso / Egiguren-Egiguren.  
21:00eta herri afaria. 23:00etan Soñuz Blai.

**13 IGANDEA**  
Jubilatuena hamaiketako. Ume  
jolasak egun guztian zehar. Gaueko  
22:00etan Eire bikotearen kontzertua.

**14 ASTELEHENA**  
Goizean zehar Oilasko biltzea.  
11:00etan haur eta gazteentzako herri  
kirolak eta bazkaria. Eguerdian, paella  
lehiaketa eta bazkaria. Gaueko 23:00etan  
kontzertua Rodeo taldearekin eta jarraian  
HGS DJ.

**15 ASTEARTEA**  
Amabirjin eguna. Goizean umeen  
krossa. 18:00etan pentatloi erakustaldia:  
Andoni Iruretagoiena (Izeta)-Jagoba Otaegi /  
Xabier Zaldua-Mikel Agirre. Harrijasotze  
erakustaldia Lur Errekondorekin. 22:00etan  
Enaitz Alberdi eta Oibar Olano trikitilariak

## Iraila

**02 LARUNBATA**  
Goizean Ondarbaso  
igoera. Herri bazkaria eta gauean  
kontzertuak.

**03 IGANDEA**  
Edadetuen eguna.

## Amabirjinak Zestoan

**07 OSTEGUNA**  
Txupinazoa eta musika.

**08 OSTIRALA**  
Diana, meza nagusia,  
bandaren kontzertua, zekorketa,  
Gure Kultura ekitaldiak...

**09 LARUNBATA**  
Paella...

**10 IGANDEA**  
Umeen bazkaria, bigarren  
zekorketa, Gurea kultura...



# Uda honetan, frexko eta dotore!



ESKATU HITZORDUA | 943 15 00 85 | garden@kimubat.eus

**Fisioterapia  
Osteopatia**

– 943 29 08 99 –

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

*Surya Paz Marticorena*

Osteopatia - Kirol masajea

☎ 605 765 140 📍 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20  
Zestoa 20740

**MIZU**  
Hertz Klinika

mizuclicadental@gmail.com  
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797  
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

**ZESTOAKO SAN TUAN FUNDAZIOA**  
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019  
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com  
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

**Taxi Zestoa**

♿ 9 Eserleku

Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

**GISASOLA**  
EGOITZA - RESIDENCIA  
Toribio Altzaga 6 - Zestoa  
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

**Botika - Laborategia  
ZURUTUZA**

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006  
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

**Gestoria Zubia**  
M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, beheka - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070

**LINTERNERIA  
SANTA CLARA**

Tel. 943 851 868  
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

EZ GALDU AUKERA!



Etxebizitza eguzkitsuak terraza ederrekin  
Garaje eta trastelekuak  
Lokal komertzialak



# ARROA BEHEAN

AZKEN ETXEBIZITZAK SAIGAI

Eraikitzailea:

Sustatzailea:

[www.rezolaberria.com](http://www.rezolaberria.com)  
tlf: 620663719

